





## 2018-19ko UPV/EHUko Orientazio Txapelketa

**Eguna:** Igandea, 2019ko martxoaren 24a

**Lekua:** Ametzagaiana (junto al Centro comercial Garbera), Donostia / San Sebastian

**IRTEEREN ORDUTEGIA (LEHIAKETA):** 10etatik 12etara (14ak aldera helmuga itxiera)





## NOLA IRITSI:

- Autoz: Lehiaketa gunea Garbera Merkataritza Zentroaren ondoan kokatzen da, hegoaldeko aldean. Horregatik, autoa Garberako aparkalekuan uztea gomendatzen da. Google Maps-eko kokapena: <https://goo.gl/maps/r1f8vPzRpf72>.
- Garraio Publikoan: DBuseko 24, 27, 33, E06 lineak lehiaketa gunearen ondoan dagoen autobus geltokira heltzen dira. (Donostiako geltokitik 33 autobusa zuzen joaten da).

**IZEN-EMATEAK:** Izen emateko epea **martxoaren 21era arte**, [www.gotorientazioa.org](http://www.gotorientazioa.org) web orrian. Izena ematerakoan formularioan UNIBERTSITARIOA aukera markatu behar da. Unibertsitarioek bakarrik BANAKAKO GORRIAN parte hartu ahal dute.

Kategoria hau 6 kmkoa izango da eta 24 baliza inguruan izango du. Ibilbidea ahalik eta denbora gutxitan egin behar izango dute partaideek.

## ARGIBIDE LABURRAK:

- Irteerara abiatu aurretik, harrera kontroletik pasatu behar izango da, eta han UNIBERTSITARIOA izatea aipatzen. Zerrendan inskripzioa baieztatuko da eta zenbakidun pinza elektronikoa (Sportident) emango zaie. Proba bukatzean pinza bueltatu behar da. (NANA edo parekoa utzi behar da pinza jasotzean)
- Behin izen-ematea baieztatuta eta pinza jasota, parte-hartzailea irteera gunera joango da.
- Partaideak iritsi ahala egingo dira irteerak. Korrikalari bakoitzaren artean 2 minutuko tartea utziko da. Garaiz iristea gomendatzen da irteeran pilaketak ez sortzeko.
- Irtetea baino lehen, pinza konprobatu eta garbitu behar izango dute, antolakuntzaren argibideak jarraituz.
- UPV/EHUko parte hartzaileek OPEN ROJO kategorian korrika egingo dute, beraz dagokienez mapa hartu behar izango dute(Gorria).
- Behin irteera hartuta, partaideek ezin dute haien artean hitz egin ezta balizak edota egoerak aipatu, larrialdi kasutan izan ezik.
- Bukatzean, partaideak harrera mahaitik pasatu behar dira, pizaren datuak jaisteko. Pinza itzuliko da eta NAN dokumentua bueltatuko zaie partaideei.
- Momentu han bertan, egindako denborarekin inprimaki bat emango zaie baliza bakoitzeko denbora partzialekin ere.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# ehukirola

- Behin-behineko sailkapenak argitaratuko dira eta bukatzean behin-betikoak.